d) Erabiltzailea beste udalerri batera lekualdatzeagatik, familia-txandakatzeen kasuan izan ezik.

e) Onuraduna adinekoentzako Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzuarekin bateragarria ez den beste baliabide edo programa batean sartzeagatik.

f) Zerbitzua ematea eragin zuen beharrizanaren arrazoia desagertzeagatik.

g) Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak faltsutzeagatik edo datuak ezkutatzeagatik.

h) Zerbitzua jasotzeko eskatutako betekizunen bat betiko galtzeagatik.

i) Zerbitzuaren jarraipena egiteko eska daitekeen dokumentazioa ez aurkezteagatik.

j) 30 eguneko epean gizarte- eta ekonomia-egoeraren aldaketei buruzko informazioa ez aurkezteagatik.

k) Aldi batez eteteko epea igarotakoan zerbitzua berriro ez erabiltzeagatik.

l) Zerbitzua ematen duten langileak edo beste erabiltzaile batzuk fisikoki edo psikologikoki erasotzeagatik.

m) Araudi honetan zehaztutako onuradunen betebeharrak behin eta berriro ez betetzeagatik (ordainagiriak epez kanpo ordaintzea, behin eta berriro ez ordaintzea eta abar).

n) Arrisku fisikoa eta/edo psikologikoa egoteagatik bai erabiltzailearentzat, bai zerbitzua ematen duten langileentzat. Udaleko zerbitzu teknikoek horri buruzko balorazioa egin beharko dute aldez aurretik.

o) Sei hilabete baino gehiagoko aldi jarraituan zerbitzua eteteagatik, etenaldia indarrean jarri zen egunetik zenbatzen hasita.

p) Urte naturalaren baitan 45 egun baino gehiagoz zentrora justifikatu gabe ez etortzeagatik.

q) Behar bezala arrazoitutako beste arrazoi batzuengatik.

Aurreko paragrafoko d) letratik p) letrara bitartean deskribatutako zerbitzua azkentzeko arrazoiren bat gertatzen bada, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak erabiltzaileari edo, hala badagokio, haren ordezkariari jakinarazi beharko dio. Azken horiek hamabost egun balioduneko epea izango dute bidezko alegazioak egiteko.

Alegazioak izapidetu ondoren, unitate teknikoak proposamen bat igorriko dio ebazteko eskumena duen organoari. Proposamen horrek honako aukera hauetako bat jaso beharko du:

a) Zerbitzuaren titularra izaten jarraitzea.

b) Zerbitzuaren titularraren izaera behin betiko galtzea eta eskubidea azkentzea.

Behin proposamena jasota, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du.

Ebazpenaren aurka (aldekoa nahiz kontrakoa), zeina legez agindutako epean eta formalitateekin jakinaraziko den, dagokion errekurtsoa jarri ahalko da, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz. Epe hori amaitu eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

Aurrekoa ez da aplikatuko eskubidea heriotzagatik edo uko egiteagatik azkentzen den kasuetan; kasu horretan, organo eskudunak espedientea artxibatuko du, aldez aurretik horri buruzko berariazko ebazpena emanda.

Zerbitzua amaitzeko ebazpenaren ondoren, erabiltzaileak berriro ere zerbitzuan sartu nahi duela azaltzen badu, beste eskabide bat egin beharko du eta, hori, araudi honetan zehaztutakoaren arabera izapidetuko da.

Zerbitzua amaitu ondoren erabiltzaileak zerbitzuaren ordainketak ordaindu gabe baditu, horiek ordaintzeko eskatuko da, zerbitzua berriro eman aurretik.

22. artikulua- <u>Adinekoentzako Eguneko Arretarako Landa-zentroko Zerbitzuaren barne-funtzionamenduari buruzko arauak</u>

Adinekoentzako Eguneko Arretarako Landa-zentroko Zerbitzuak barne-funtzionamenduko arauak izango ditu, I. D eranskinean xedatutakoaren araberakoak.

23. artikulua- Adinekoentzako Eguneko Arretarako Landa-zentroko Zerbitzuaren prezio publikoa

Une bakoitzean indarrean dagoen ordenantza fiskalak zehaztuko du erabiltzaileek zer prezio ordaindu behar duten Adinekoentzako Eguneko Arretarako Landa-zentroko Zerbitzuaren truke.

Zerbitzua ematen duten langileek eta, hala badagokio, enpresa adjudikaziodunek ez dute dohaintzarik ez ordainketa osagarririk onartuko, aurreko paragrafoan ezarritakoa alde batera utzita. Enpresa adjudikazioduna betebehar hori betearazteaz arduratuko da.

24. artikulua.- Finantzaketa

Adinekoen Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzuaren finantzazioa honako hauen kontura izango da:

- Onuradunak zerbitzuaren finantzaketan parte hartu beharko du, eta organo eskudunak emandako ebazpenean ezarritako zenbatekoa ordaintzeko konpromisoa sinatuko du. Horretarako, onuradunaren baliabide ekonomikoak kontuan hartuko dira, dagokion ordenantza fiskalean jasotakoaren arabera. Betekizun hori betetzea nahitaezkoa izango da zerbitzua ematen hasteko.

- Zerbitzuaren prezioaren eta onuradunak ordaindu beharreko ekarpenaren (kasuan kasuko ordenantza fiskalean jasotakoaren arabera kalkulatutakoa) arteko kenketatik lortzen den zenbatekoa administrazio publikoak ordainduko du.

25. artikulua.- Eguneko Arretarako Landa-zentroko Zerbitzuaren erabiltzaileen ekarpena

Erregelamendu honen bidez araututako Eguneko Arretarako Landa-zentroaren zerbitzuaren erabiltzaileak zerbitzuaren prezio publikoa ordaindu beharko du. Zenbateko hori kalkulatzeko, onuradunaren gaitasun ekonomikoa kontuan hartuko da, dagokion ordenantza fiskalean xedatutakoaren arabera.

Erabiltzailearen ekarpena zehazteko, dagokion ordenantza fiskalean jasotako elementuak aintzat hartuko dira.

Gaitasun ekonomikoei buruzko datuetan gezurra esan edo daturik ezkutatzen bada, eskabidea artxibatu edo zerbitzua amaituko da, jadanik zerbitzua ematen hasi bada. Gainera, horrek ez dio inolako kalterik eragingo

gertakari horietatik erator litezkeen erantzukizunei. Administrazio eskudunak prezioa ordaintzeko laguntza edo hobariren bat eman badio erabiltzaileari, dirulaguntzak itzultzeko prozedura hasiko da.

Erabiltzaile bakoitzak egin beharreko banakako ekarpena ofizioz berrikusi ahalko da, baita erabiltzaileak edo bere ordezkariak eskatuta ere, baldin eta dagokion ordenantza fiskalean xedatutako terminoetan ekarpena aldatzea eragin dezakeen aldaketarik badago betekizun eta inguruabarretan.

Berrikusteko prozedura, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, erregelamendu honetan zerbitzua modalitate arruntean emateko ezarritako prozedurari egokituko zaio.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamenduaren laburpen bat prestatuko da erabiltzaileei emateko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta gelditzen dira lerrun bereko edo txikiagoko arau guztiak, araudi honetan ezarritakoaren kontra edo kontraesanean dagoen guztiari dagokionez.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamabost egunera sartuko da indarrean.

I. B. ERANSKINA.
SARTZEKO BAREMOA

Sartzeko baremoak eskatzaileen zerrenda ordenatzeko irizpideak ezartzen ditu, bai eta zerbitzura sartzeko lehentasuna ezarri ere, gizarte diagnostikoaren araberakoa.

BAREMOAREN EGITURA:

DIMENTSIOAK	***PUNTUAZIO-TARTEAK***
Eguneroko jarduerak (oinarrizkoak) egiteko laguntza behar izatea // Autonomia eta osasun-egoera	**0-30**
Bizikidetzaren eta babes sozialaren egoera	**0-25**
Etxebizitzaren edo bizitokiaren egoera	**0-10**
Egoera ekonomikoa	**0-30**
Familia berrelkartzea	**5**
Guztira	**0-100**

I.- EGUNEROKO JARDUERAK (OINARRIZKOAK) EGITEKO LAGUNTZA BEHAR IZATEA // AUTONOMIA ETA OSASUN-EGOERA

Pertsonek eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko (jan, jantzi, norbera garbitu) behar duten laguntza-maila baloratzea da helburua, haien autonomia-mailari eusteko eta sustatzeko eta beren ingurunean bizi-kalitate onarekin bizitzen jarraitzen dezaten laguntzeko.

Balorazio hori egiteko, MBBn eskuratutako puntuazioa erabiliko da, honela:

Laguntzaren beharrari buruzko BAREMOA	***Puntuak***	
MBB 23-39 puntu	30	☐
MBB >39 puntu	15	☐
MBB <23 puntu edo mendetasunaren balorazioriik gabe	10	☐
EGUNEROKO JARDUERAK (OINARRIZKOAK) EGITEKO LAGUNTZA BEHAR IZATEAREN PUNTUAZIOA (30 puntu gehienez ere)		☐

II.- BIZIKIDETZAREN ETA BABES SOZIALAREN EGOERA:

Erabiltzaileak bere beharrak estaltzeko duen laguntza-maila ezagutzea da helburua, honako aldagai hauen arabera:

- *Bizikidetza-egoera:* Bakarrik edo norbaitekin bizi den. Beste adineko batzuekin (senitartekoak edo lagunak) edo senide edo lagunekin bizi den.
- *Sare informalaren existentzia, baliagarritasuna eta eskuragarritasuna* (senideak eta/edo lagunak) eta sare horrek ematen dituen babes-motak.

Balorazio hori egiteko, baremo hau erabiliko da:

Gizarte- eta familia-arloko BAREMOA	***Puntuak***	
1.- Erabiltzailea bakarrik edo norbaitekin bizi da eta honako egoeraren bat bizi du: tratu txar fisikoak edo psikikoak, abusu ekonomikoa, utzikeria egoera, zabarkeria larria oinarrizko arretan, gatazkak eta/edo familiaren desegituraketa larria.	25	☐
2.- Erabiltzailea bakarrik edo norbaitekin bizi da eta ez du familiaren eta/edo gizartearen laguntzarik: halakorik ez duelako edo ohiko zaintzaileak ezin diolako arretarik eskaini arrazoi objektiboengatik.	20	☐
3.- Bakarrik bizi den eta familiaren/gizartearen laguntza-sare oso txikia duen pertsona; behar duen arretarako laguntza oso urria eta puntuala ematen du sareak. / Familiak gehiegizko kargak edo gizarte-egoera ezegonkorrak ditu.	15	☐
4 – Erabiltzailea bakarrik bizi da (edo mendatasuna/desgaitasuna duen beste pertsona batekin), familiaren eta/edo gizartearen laguntza-sare bat du, nolabaiteko babesa ematen diona, baina ez da nahikoa erabiltzaileak behar duen arretarako, edo osasun-arrazoiengatik mugatuta dauden edo lan-arloko betebeharrak dituzten pertsonekin bizi da, adinekoari arreta egokia ezin eman diezaioketenak.	10	☐
5 – Erabiltzailea beste norbaitekin bizi da (mendetasunik ez duena), familiaren eta/edo gizartearen laguntza-sarea du, baina sare hori ez da nahikoa hark behar duen arretarako.	5	☐
6 – Erabiltzailea bakarrik edo beste norbaitekin bizi da eta erraz balia dezakeen eta eskuragarri duen familiaren eta/edo gizartearen babesa dauka.	0	☐
GIZARTE- ETA FAMILIA-EGOERAREN PUNTUAZIOA (gehienez 25 puntu)		☐

III.- ETXEBIZITZAREN EDO BIZITOKIAREN EGOERA.

Etxebizitzaren edo bizitokiaren ezaugarriak baloratuko dira, pertsona baldintzatu baitezakete autonomia-mailari eta ingurunearen kontrolari dagokienez.

Kontuan hartu beharreko aldagaiak irisgarritasuna eta bizigarritasuna dira, baremo honen araberakoak:

Etxebizitzaren edo bizitokiaren egoeraren BAREMOA			
IRISGARRITASUNA		***Puntuak***	
A. Eraikinaren kanpoaldea	➢ Ez dauka sartzeko arazorik.	0	☐
	➢ Etxebizitzara iristeko eskailerak igo edo jaitsi behar ditu, edo arkitektura-oztoporen bat gainditu behar du // Etxebizitza herrigunetik urrun dago, eta zailtasunak ditu oinarrizko baliabideak eskuratzeko.	2	☐
B. Eraikinaren barrualdea	➢ Ez dauka sartzeko arazorik.	0	☐
	➢ Atarian eskailerak daude igogailura edo etxebizitzara iristeko, eta ez dago horiek ekiditeko sistemarik. // Ez dauka igogailurik.	2	☐
C. Etxebizitzaren barrualdea	➢ Ez dago arkitektura-oztoporik.	0	☐
	➢ Arkitektura-oztopoak daude, mugikortasuna eta moldakortasuna mugatzen dutenak; ez dauka segurtasun- eta/edo egokitzapen-neurririk.	4	☐
IRISGARRITASUNA GUZTIRA (A+ B+ C)			☐

BIZIGARRITASUNA	***Puntuak***	
➢ Ez dauka bizigarritasun-arazorik.	0	☐
➢ Mantentze-lan egokiak falta zaizkio.	1	☐
➢ Egiturazko arazoak ditu (hezetasunak, komunik ez, sukalderik ez, itoginak, instalazio elektriko eta sanitario eskasak).	2	☐
BIZIGARRITASUNA GUZTIRA		☐
ETXEBIZITZAREN EGOERAREN PUNTUAZIOA (gehienez 10 puntu)		☐

IV.- EGOERA EKONOMIKOA

Egoera ekonomikoa baloratzeko familiaren hileko gaitasun ekonomikoa kontuan hartuko da, ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera. 1.500 eurotik behera 12 tarte zehaztu dira, progresiboki puntuatuko direnak:

Familiaren hileko egoera ekonomikoaren BAREMOA	***Puntuak***	
500,00 eurora arte	30	☐
501,00 eurotik 600,00 eurora	27	☐
601,00 eurotik 700,00 eurora	24	☐
701,00 eurotik 800,00 eurora	21	☐
801,00 eurotik 900,00 eurora	18	☐
901,00 eurotik 1000,00 eurora	15	☐
1001,00 eurotik 1100,00 eurora	12	☐
1101,00 eurotik 1200,00 eurora	9	☐
1201,00 eurotik 1300,00 eurora	6	☐
1301,00 eurotik 1400,00 eurora	3	☐
1401,00 eurotik 1500,00 eurora	1	☐
1500,00 eurotik gora	0	☐
Ez du bere egoera ekonomikoa baloratzerik nahi.	0	☐
EGOERA EKONOMIKOAREN PUNTUAZIOA (gehienez 30 puntu)		☐

V.- FAMILIA BERRELKARTZEA

Eskatzaileren ezkontidea edo ezkontzaren antzeko harreman baten bidez hari lotuta dagoen pertsona (behar bezala egiaztatuta)
Eguneko Arretarako Landa-zentro batean
dagoenean. **5 puntu**

I. D. ERANSKINA
EGUNEKO ARRETARAKO LANDA-ZENTROKO ZERBITZUAREN BARNE-FUNTZIONAMENDUKO ARAUAK

- Arau orokorrak
  - Erregelamendu honetan jasotakoa ezagutu eta betetzen saiatu beharko da.
  - Bizikidetza-arauak beteko dira, bai eta higienea eta elkarren arteko errespetua gordeko ere, bai zentroaren barruan, bai zentroak eskaintzen dituen jarduerekin zerikusia duen beste edozein lekutan, giro ona sortzeko asmoz.
  - Eskura jarritako zentroko zerbitzuak eta instalazioak behar bezala erabiliko dira.
  - Aurkitzen den edozein objektu zentroko langileei edo oinarrizko gizarte-zerbitzuko langileei entregatuko zaie.
  - Zentrora balio handiko objekturik edo diru-kopuru handirik ez eramatea gomendatzen da.
  - Ezarritako ordutegiak errespetatuko dira. Ordutegian aldaketarik egonez gero, aldaketak aurrerapen nahikoarekin jakinaraziko dira.
  - Arreta jarriko da ahoz edo idatziz jakinarazten diren arau eta oharretan, eta horiek betetzen saiatuko da, zentroak ondo funtzionatu dezan.

a) - Otorduei buruzko arauak

- Adierazitako orduetan emango dira otorduak.
- Dieta bereziak eskaintzeko aukera egongo da. Kasuan kasuko dieta gomendatzen duen txosten medikoa aurkeztu beharko da horretarako. Menua iragarki-taulan jarriko da ikusgai.
- Ezingo da zerbitzuan janaririk edo tresnarik sartu, ezta atera ere, hala nola mahai-tresnak, edalontziak, platerak eta ezpainzapiak.
- Ganoraz jateko ahalegina egin beharko da, gainerakoentzat desatseginak izan daitezkeen jateko moduak alde batera utzita.

b) - Arropari eta norberaren higieneari buruzko arauak

- Zentroa arropak garbitzeaz arduratuko da soilik, zerbitzu hori esleituta duten erabiltzaileen kasuan.
- Erabiltzaile bakoitzak norberaren higienerako tresnak izango ditu zerbitzuan, eta ordezko arropa-sorta oso bat.
- Arropa markatzea gomendatzen da, nahasterik egon ez dadin.

- Itxura pertsonala zaintzea ongizate-faktorea da erabiltzailearentzat eta inguruko pertsona guztientzat; horregatik, erabiltzailea behar bezala janztea eta garbitzea gomendatzen da, jakina, bere gustu eta ohituren arabera. Arropa eta zapatak ahalik eta erosoenak izan beharko dira.
- Bainatzeko zerbitzua esleituta izanez gero, intimitate-baldintza zorrotzetan egingo da, horretarako adierazitako ordutegien barruan. Erabiltzaileak bainatzeko zailtasunak baditu, zerbitzuko langileek laguntza emango diote.

- Segurtasunari eta osasun publikoari buruzko arauak
  - Zerbitzuaren instalazio guztietan erretzea debekatuta dago.

c) - Langileekiko harremanei buruzko arauak

- Zerbitzuko langileak erabiltzailearen esanetara daude, erabiltzaileak jasotzen duen arreta ahalik eta kalitaterik handienekoa izan dadin.
- Pertsona guztiengana hurbil daiteke, inolako mugarik gabe, baina adeitasunez eta errespetuz.
- Arreta jarriko da zerbitzuko langileek zerbitzu osoaren eta erabiltzailearen onurarako ematen dituzten argibidetan.
- Zerbitzuko langileek laguntza emango diete behar duten pertsonei. Salbuespen gisa, erabiltzailearen senideek edo lagunek eta boluntarioek ere laguntza eman ahalko dute, betiere zerbitzuaren arduradunarekin edo zerbitzuko langileekin adostuta.
- Pertsona guztiek, bai erabiltzaileek bai profesionalek, eskubidea dute errespetuz, zuzentasunez eta ulermen osoz arreta pertsonalizatua jasotzeko.

d) - Familiekiko harremanei buruzko arauak

- Familiekiko komunikazioak behar bezain ohikoa eta arina izan beharko du, batez ere, pertsona berriaren egokitzapen-aldian.
- Erabiltzailea ez bada Eguneko Arretarako Landa-zentroko Zerbitzura joango, berehala jakinarazi beharko du, zerbitzuak ez-etortzearen berri izan dezan eta, hala badagokio, garraio-zerbitzua bera jasotzera joan ez dadin.

e) - Garraioari buruzko arauak

- Erabiltzaileak egokitutako garraio-zerbitzua esleituta badu, sartu aurretik egingo zaion elkarrizketan garraio-zerbitzuaren inguruko

alderdiak adierazi beharko dira, hala nola ordutegiak, geltokiak eta abar.

- Egun jakin batzuetan erabiltzaileak garraio-zerbitzurik behar ez badu, beharrezkoa eta premiazkoa izango da adinekoentzako Eguneko Arretarako Landa-zentroaren zerbitzuari edo udaleko gizarte-zerbitzuari jakinaraztea, beste erabiltzaile batzuen ordutegiak kaltetu ez daitezen. Hori ezinezkoa bada, salbuespen gisa, ibilgailuaren gidariari jakinarazi ahalko zaio. Komeni da ez-etortzearen arrazoien berri ematea.

f) - Irteeren erregimena eta bisitak egiteko ordutegia

- Erabiltzaileak, erabiltzaile izateagatik, zentroan programatutako jardueretan parte hartzeko eskubidea izango du. Erabiltzailea zentrotik irten ahal izango da, betiere zentroko dinamika kaltetzen ez badu eta profesionalen lantaldeari jakinarazi ostean. Arrazoiren batengatik erabiltzailea ezin bada bakarrik atera, zerbitzuko langileek, lagunek, senitartekoek edo erabiltzailearekin harremana dutela egiaztatzen duten boluntarioek lagundu ahalko diote.
- Zerbitzuren batera edo guztietara egun batez edo gehiagoz ez joateko asmoa badu, horren berri eman beharko dio adinekoentzako Eguneko Arretarako Landa-zentroko Zerbitzuko langileei eta/edo udaleko gizarte-zerbitzuetako langileei.
- Senide edo lagunen bisitak, egoera berezietan izan ezik, aldez aurretik jakinarazi beharko zaizkie Eguneko Arretarako Landa-zentroko Zerbitzuko langileei, horrela, programatutako jarduerak eta horien dinamika beharrik gabe eten ez daitezen.

g) - Erabiltzaileari arreta emateko bideak

- Zerbitzuan parte hartzea faktore garrantzitsua da, eta oso eragin positiboa du zerbitzuaren eguneroko bizitzan eta martxa orokorrean.
- Erabiltzaileak zuzenean parte har dezake Eguneko Arretarako Landa-zentroaren kudeaketan. Horretarako, bere iritzia eta iradokizunak helaraz diezazkioke udaleko gizarte-zerbitzuari edo profesionalen lantaldeari, antolamenduaren, funtzionamenduaren edo praktika profesionalen alderdiekin lotutakoak, eta zerbitzuaren kalitatean eragina dutenak edo, zuzenean edo zeharka, beren eskubideen erabileran eragina dutenak.
- Zentroaren dinamika soziokulturalean parte hartzea borondatezkoa izango da. Erabiltzaileentzat egokituta egongo da eta haien proposamenak ongietorriak izango dira. Erabiltzaileen eskaerei ahal den neurrian erantzungo zaie.

- Erabiltzaileari zuzenean eragiten dion edozein erabaki kontsultatuko zaio, eta hala eskatzen bada edo komenigarritzat jotzen bada, erreferentziazko senideari ere egingo zaio kontsulta.

- Erreklamazioak egiteko prozedura, kexen eta iradokizunen araubidea.

- Erabiltzaileak edo bere konfiantzako pertsona batek (horretarako beren-beregi izendatutakoak) iradokizun, erreklamazio edo kexaren bat jarri nahi badu, udaleko gizarte-zerbitzuari eska dakiokeen erreklamazio-orri baten bidez eta/edo zuzenean egin dezake hori. Konfidentzialtasuna une oro bermatuko da.
- Kexak jaso eta formalki izapidetzeko ardura udaleko gizarte-zerbitzuaren arduradunak izango du.
- Kexa idazteko arazorik izatekotan, gizarte-langile batek laguntza eta aholkularitza emango dio, kasuan kasuko eskaera izapidetuz eta eskaerari erantzun puntuala emanez.
- Horrez gain, iradokizunak egiteko gutunontzi bat dago, non iradokizunak sar daitezkeen. Konfidentzialtasuna une oro bermatuko da.

II. A. ERANSKINA

ORDENANTZA FISKALA
EGUNEKO ARRETARAKO LANDA-ZENTROARENA

BARRUNDIAKO UDALAREN EGUNEKO ARRETARAKO LANDA-ZENTROAREN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua- Xedea.

Ordenantza honen xedea da Eguneko Arretarako Landa-zentroaren prezio publikoen aplikazioa arautzea, eta bereziki:

- Zerbitzuaren pertsona erabiltzaileak prezio publikoan duen parte-hartze ekonomikoa zehazteko irizpideak.
- Sortzapena eta ordainketa arautzen duten irizpideak.
- Prezio publikoak ordaintzera behartuta dauden pertsonen gaitasun ekonomikoa zehazteko irizpideak.
- Prezio publikoen zenbatekoa eta gaitasun ekonomikoaren arabera ezarri beharreko hobariak zehaztea.

2. artikulua- Esparrua.

Ordenantza fiskal hau Eguneko Arretarako Landa-zentroari ezarriko zaio; kudeaketa zuzeneko araubidean zein hitzarmen bidez beste erakunde publiko batzuekin, eta kontzertu, hitzarmen edo kontratu bidez erakunde pribatuekin.

3. artikulua- Ordaindu behar duten pertsonak.

1. Prezio publikoa ordaindu beharko dute:
   a) Eguneko Arretarako Landa-zentroaren zerbitzua zuzenean jasotzen duten pertsona fisikoak, 1. paragrafo honetako b) ataleko kasuan ez daudenean.
   b) Helduak badira, legezko ordezkariaren edo izatezko zaintzailearen bidez jarduten badute, azken horiek ordaindu beharko dituzte; hala ere, kasu horietan, ordezkatutako pertsonaren errentaren eta

ondarearen kontura egingo da ordainketa, eta gaitasun ekonomikoa ordezkatutako pertsonarena izango da.

2. Hala badagokio, subsidiarioki ordaintzera behartuta egongo dira erabiltzaileak edo haren ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harreman baten bidez hari lotuta dagoen pertsonak —ordenantza fiskal honetako lehen xedapen gehigarrian zehaztutako moduan— dohainik eskualdaturikoaren onuradun diren pertsonak; 60 urtetik aurrera edo zerbitzuaren lehen eskaera aurkeztu aurreko 10 urteko epean.

Ordaintzeko betebeharra merkatuko balio eguneratura iristen da ondasun higiezinen kasuan, zorra eskatzeko unean.

Gainerako ondasunen dohaintzetan, ordaintzeko betebeharra, dohaintzaren datan, eskualdaketa-baliora arte iritsiko da, dagokion KPlaren arabera eguneratuta.

Era berean, erabiltzailearen ondare osoa edo zati bat bahitu egin bada abal-emaile, hipoteka-bermatzaile edo antzeko figura gisa hirugarren baten alde sinatu duelako, hirugarren pertsona horrek, subsidiarioki, prezio publikoa ordaindu beharko du. Ordaintzeko betebeharra abala, hipoteka edo antzeko figura eratzeko eskrituretan edo, halakorik ezean, enbargo-eskrituretan esleitutako tasazio-baliora arte iristen da.

I. TITULUA: ERABILTZAILEAREN PARTE-HARTZE EKONOMIKOA

4. artikulua- Prezio publikoaren ordainketa osoa.

1. Eguneko Arretarako Landa-zentroa ordaintzera behartuta dauden pertsonek, ordenantza fiskal honetako 3.1 artikuluan aurreikusitako moduan, dagokion prezio publikoa ordainduko dute, osorik, horretarako behar adinako gaitasun ekonomikoa dutenean, prezio hori ordainduko dela ziurtatzeko berme egokiak formalizatzea eska badaiteke ere.
2. 1. paragrafoan aurreikusitakoari dagokionez, ordenantza fiskal honetako 3.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz ordaintzera behartuta dauden pertsonek behar adinako gaitasun ekonomikoa dutela ulertuko da, baldin eta ahalmen hori, ordenantza fiskal honetako III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, II. eranskinean adierazitako mugen parekoa edo handiagoa bada, zerbitzu motaren arabera.
3. Ordenantza fiskal honetako 3.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren gaitasun ekonomikoa txikiagoa bada artikulu honen 2. paragrafoan aipatutako mugak baino, subsidiarioki ordaintzeko betebeharra dute pertsonengana (3.2 artikuluan zehaztuak)

joko da —halakorik balego—, erabiltzailearen ekarpena osa dezaten, prezio publikoaren zenbateko osoa estali arte, edo prezio publiko osoa ordain dezaten, 3.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren gaitasun ekonomikoak ez dionean uzten ekarpenik egiten.

5. artikulua- Hobariak.

1. 3.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz ordaintzera behartuta dauden pertsonek ez badute prezio publikoa osorik ordaintzeko adinako gaitasun ekonomikorik, II. eranskinean zehazturiko mugetatik beherakoa delako, hobariak jaso ahal izango dituzte kasuan kasuko prezio publikoetan.
2. Aurreko paragrafoan aipatzen diren prezio publikoari ezartzen ahal zaizkion hobariak zehazteko, gehikortasun-printzipioa hartuko da kontuan, erabiltzailearen gaitasun ekonomikoaren arabera. Printzipio hori ordenantza fiskal honetako III. tituluko I. kapituluan ezarritako irizpideen arabera zenbatuko da.
3. Artikulu honetan aurreikusitako hobariak ordenantza fiskal honen III. eranskinean zehazten dira, eta I. eranskinean zehazturiko prezio publikoak indarrean dauden bitartean ezarriko dira. Prezio horiek 16. artikuluan ezarritako bidetik eguneratu edo aldatzen direnean, dagozkien hobariak zehaztuko dira.

6. artikulua- Erabilera-motaren araberako salbuespen partzialak.

1. Eguneko Arretarako Landa-zentroaren zerbitzua erabiltzen duten pertsonak gizartean eta familian integratzea errazteko, erabiltzaileak 5 egun edo gehiago jarraian egoten badira zentrotik kanpo —betiere, egun horiek bat badatoz zerbitzua benetan martxan dagoen egunekin—, urtean gehienez ere 45 egun, lanpostua gordetzeagatik eta adierazitako aldietan, esleituta duten prezio publikoaren % 60a ezarriko zaie. Gizartean eta familian integratzearen ziozko ez egoteak urteko 45 egun gainditzen baditu, ez da ezarriko salbuespen partziala, eta esleitutako prezio publiko osoa ezarriko da berriz ere 46. egunetik aurrera.

2. Ospitaleratze-kasuetan ez da prezio publikoaren ordainketaren salbuespen partzialik ezarriko eta, beraz, ez da prezio publikoaren sortzapena etengo. Aurrekoa alde batera utzi gabe, erabiltzaileak 7 egun edo gehiago ematen baditu jarraian ospitaleratuta, erabiltzaileak ordaindu beharreko prezioa % 90ekoa izango da, ospitaleratze-aldiaren lehen egunetik aldi hori amaitzen denera arte, salbu eta aldi hori zerbitzu horretara sartzeko araudian aurreikusitako gehieneko etenaldia baino luzeagoa bada; hortik aurrera, iraungi egingo da ospitaleratzearen aurretik erabiltzen zuen zerbitzua.

3.Ez da prezio publikoaren ordainketaren salbuespen partzialik ezarriko, zerbitzua eskuratzeari buruzko araudiaren arabera, eskatzen den informazioa eta dokumentazioa berandu aurkeztearen zioz edo prezio publikoa behin baino gehiagotan ez ordaintzearen zioz gerta daitezkeen zerbitzuaren etete-kasuetan.

7. artikulua- Erabilera libreko diru-kopurua.

Erabilera libreko zenbatekoa bermatuta geldituko da, zerbitzu mota bakoitzari dagozkion hobariak (ordenantza fiskal honen III. eranskinean ezarriak) zehazteko formularen bidez.

II. TITULUA SORTZAPENA ETA ORDAINKETA

8. artikulua.- Sortzapena.

Arautegi honetan araututako prezio publikoa ordaintzeko beharra hasiko da zerbitzua benetan ematen hasten denean, eta egun horretatik zerbitzua behin betiko eteten den egunera arte igarotako aldia kontuan hartuko da.

9. artikulua.- Ordainketa.

Esleitutako prezio publikoak —osoak, hobaridunak zein zati batean salbuetsiak— ordainagiria kobratzeko aurkezten zaion unean ordainduko dira, banku-helbideratzearen bidez.

III. TITULUA. KUDEAKETA- ETA LIKIDAZIO-ARAUAK

I. KAPITULUA. GAITASUN EKONOMIKOA ZEHAZTEA

10. artikulua- Gaitasun ekonomikoaren osagaiak

1. 3.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren gaitasun ekonomikoa kalkulatzeko, prezio publikoan duen parte-hartzea zehazteko xedearekin, familia-unitatearen errenta eta ondarea baloratuko dira, urteko zenbaketan, eta horretarako kapitulu honetan ezarritako balorazio-irizpideak ezarriz.
2. Gaitasun ekonomikoa zenbatzeko, honako hauek erabiliko dira:
   a) Eskura dauden azken datu fiskalei dagozkien balioak, salbu eta, geroago, balio horiek aldatu dituen gertaera garrantzitsuren bat gertatu bada; kasu horretan, daturik berrienak hartuko dira kontuan.
   b) Hiri- edo landa-lurreko ondasunen kasuan, horiek katastroko balioaren arabera zenbatuko dira, erreferentziatzat hartuta eskura dauden azken datu fiskalak. Balio hori autonomia-erkidego edo lurralde historiko

bakoitzeko ondasun higiezinak baloratzeko araudiaren arabera dago eguneratuta.

c) Edozein motatako ondasunen dohaintzak edo haien gaineko eskubideen uko egiteak dohaintzaren egunean eskualdatutako balioaren arabera baloratuko dira, dagokion KPIaren arabera eguneratua.

11. artikulua- Errenta.

1) Aurreko artikuluan aurreikusitako gaitasun ekonomikoa kalkulatzeko, errenta edo diru-sarrera konputagarritzat hartuko dira familia-unitateak urtero dituen etekin eta eskubideak, lanaren ondoriozkoak, honako hauetatik datozenak:
   a) Funts publiko edo pribatuen kargurako pentsioak eta prestazio ekonomikoak, jasotzen diren diru-sarrera gordinak kontuan hartuta; ondorio horietarako, halakotzat hartuko dira zerbitzua jasoko duen pertsonak dituen pentsioak, sorospenak, prestazio ekonomikoak edo beste edozein eskubide ekonomikoak, artikulu honetako 2. paragrafoan aurreikusitakoak izan ezik.
   b) Norbere edo besteren kontura egiten den lanetik eratorritako etekin osoak.

2) Errenta zehazterakoan, ez dira zenbatuko honako prestazio hauek:
   a) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko azaroaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako prestazio ekonomiko finalistak: Familia-inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.
   b) Ondoko prestazioak, a) atalean aurreikusitako izaera eta xedearen antzekoak:
      - Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onetsi zuen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 194. artikuluan eta hurrengoetan arautzen den baliaezintasun handiagatiko osagarria.
      - % 75eko edo hortik gorako desgaitasuna duen 18 urtetik gorako seme-alabagatiko esleipen ekonomikoaren osagarria, Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015

Legegintzako Errege Dekretuaren 353.c) artikuluan ezarritakoa.

- Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onetsi duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 364. artikuluan (Gizarte Segurantzaren arloko xedapen espezifikoei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legeak aldatua) ezartzen den beste pertsona baten beharraren ziozko kotizazio gabeko baliaezintasun pentsioaren osagarria;
- Hirugarren pertsonarengatiko laguntza (desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 12.2.c). artikuluan ezartzen dena eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan mantentzen dena), legegintzako errege dekretu horren onuradun izateaz gain, lege horren xedapen iragankor bakarrean jasotzen diren baldintzak betetzen dituztenentzat.

3) Errenta baloratzeko, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Foru Sailak emandako informazioa hartuko da erreferentzia gisa, 10.2 artikuluan aipatutako datu fiskal erabilgarrien arabera. Diru-sarreratzat hartuko da honako kontzeptu hauen batura:
   -Ianaren ziozko etekin osoak;
   -Ianbide-, enpresa-, nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren etekin osoak;
   -egotzitako salbuetsitako lan-errentak guztira.

   Artikulu honetako 2. paragrafoan adierazitako errentak jasotzen diren kasuetan, prestazio ekonomiko horien egiaztagiria aurkeztu beharko da, paragrafo horretan aurreikusitako ondorioetarako salbuetsitako zenbatekoa zehazteko.

4) Hileko errenta zehazteko, urteko errenta hamabi hilerokotan banatuko da.

.12. artikulua.- Ondarea.

1. 10. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, ondaretzat hartuko da:
   - Guztiz edo zati batean familia-unitatea osatzen duten pertsonen titulartasunekoak diren ondasun eta eskubide ekonomikoak, eskuragarri

dauden azken datu fiskalak erreferentziatzat hartuta, eta finantza-aktiboei buruz eskatzen den informazioarekin osatuta.
- Kalte-ordainak eta kapitalizaturiko errentak, ekitaldi batean edo gehiagotan sortutakoak.
- Erabiltzaileak edo haren ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harreman baten bidez hari lotuta dagoen pertsonak —lotura hori foru dekretu honen lehen xedapen gehigarrian zehazten den moduan— edo ordaintzera behartutako pertsonak dohainik eskualdatu dituen ondasun eta eskubideen balioa, dohaintzaren egunean duen transmisio-balioarekin, dagokion KPIaren arabera eguneratua.

2. Ez dira kontuan hartuko ondarean:

a) Ohiko etxebizitza, aparteko balioa duenean izan ezik. Aparteko balio hori duela ulertuko da haren balio katastrala 250.000 eurotik gorakoa denean; kasu horietan, ondarearen ondorioetarako, muga horrekiko balio katastralaren soberakina kontatuko da.
Ez da ohiko etxebizitzatzat hartuko, hala bazen ere, izaera hori galtzen badu etxebizitzaren titularra edozein modalitatetako egoitza-zentro edo behin betiko landa-eremuko ostatu-zerbitzuan sartu delako behin betiko, salbu eta 24. artikuluan definituriko familia-unitatea osatzen duten pertsona bat edo batzuk etxean geratzen direnean.
Ondorio horietarako, ohiko etxebizitzaren kontzeptuan sartuko da, etxebizitzaz beraz gain, garaje bat eta/edo trasteleku bat, zein, landa- edo hiri-izaera duen familia bakarreko etxebizitza bada, bereizita ez dagoen erantsitako lurzatia.

b) Ondasun eta eskubideek dituzten karga eta zamak eta beren balioa murrizten dutenak, salbu eta ohiko etxebizitzarako den higiezina eskuratzeko direnak edo, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak onetsi ondoren, hura birgaitzeko direnak. Karga konputagarri horiek ezingo dute inola ere sortu balio garbi negatiborik.

c) Zor eta betebehar pertsonalak.

d) Bereziki babesturiko ondarera ekarritako ondasun eta eskubideak, azaroaren 18ko 41/2003 Legearen babesean (desgaitasuna duten pertsonen ondarea babestekoa eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta Zerga Araudia aldatzen dituena), helburu honekin, salbu eta aipaturiko ondarearen titularra bada zerbitzua jasotzen duena, ondare horrek pertsonaren bizi-premiak asebetetzen duen heinean, aipaturiko legearen 1.1 eta 5.4 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

e) Landa- edo hiri-izaera duten ondasun higiezinak, jarduera ekonomiko bati lotutakoak; horien etekinak errenta zehazteko hartzen dira kontuan, 11. artikuluan ezarritako moduan.

Hileko ondarea zehazteko, ondarearen urteko zenbatekoa hamabi hilerokotan banatuko da.

13. artikulua- Familia-unitatea

1. Kapitulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, familia unitateko kidetzat hartuko dira honako hauek:

- zerbitzua baliatuko duen pertsona;
- haren ezkontidea edo legez aitortutako eta behar bezala egiaztatutako antzeko harreman baten bidez hari lotuta dagoen pertsona, lehenengo xedapen gehigarrian definituriko moduan.
- haren ondorengo adingabeak, betiere eskatzaileak haien guraso-ahala baldin badu eta haien mantenu ekonomikoari laguntzen badie, zati batean edo erabat.
- ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duten 18 urtetik gorako seme-alabak, betiere, zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira;
- ikasketa akademiko arautuak egiten ari diren 18 eta 25 urte arteko ondorengoak, betiere, eskatzaileak haien guraso-ahala baldin badu eta haien mantenu ekonomikoari laguntzen badie, zati batean edo erabat.

Ondorengoen zaintza partekatua dagoen kasuetan, pertsona horiek zerbitzua eskatzen duen pertsonaren familia-unitatean sartuko dira. Aurreko bi ahaideek foru-zerbitzua eskatzen dutenean, lehenengo ondorengoa mendekotasun-mailarik handiena duen eskatzailearen familia-unitatean sartuko da; bigarrena mendekotasun-mailarik txikiena duen eskatzailearen familia-unitatean, eta horrela, hurrenez hurren, ondorengo kopuruaren arabera.

2. Edonola ere, pertsona bat familia-unitate bakarreko kide izango ahalko da soilik.

14. artikulua- Gaitasun ekonomikoa baloratzeko irizpideak.

1. Gaitasun ekonomikoa familiaren urteko errenta eta familia-ondarearen urteko ondorengo ehunekoak (erabiltzailearen adinaren arabera aldatzen direnak) batzearen ondoriozko zenbatekoaren baliokidea izango da, jarraian zehazten den bezala:

65 urtetik gorako pertsonak, beren ondarearen ehuneko 20. Atal honetan ezarritakoa aplikatuko zaie, halaber, 65 urte izan ez arren, adinekoentzako zerbitzu edo zentroetara salbuespenez sartzen direnei.

2. Prezio publikoa familia unitatearen gaitasun ekonomikoaren arabera zehazten den zerbitzuen kasuan, irizpide espezifiko hauek aplikatu beharko dira:

a) Familia-unitatea pertsona bakarrekoa denean, 1. paragrafoan ezarritakoa zuzenean aplikatuz kalkulatuko da gaitasun ekonomikoa.

b) Familia-unitatea bi lagunek osatzen dutenean, aplikagarria den prezio osoa edo hobariduna kalkulatzeko, 1. paragrafoan aurreikusitakoarekin bat kalkulatutako hileko gaitasun ekonomiko osoaren % 80 hartuko da kontuan.

c) Familia-unitatea bi lagunek baino gehiagok osatzen dutenean, b) atalean aurreikusitako % 80ko portzentajea % 5 murriztuko da gainerako pertsona bakoitzeko.

Hileko gaitasun ekonomikoa zehazteko, urteko gaitasun ekonomikoa hamabi hilerokotan banatuko da.

II. KAPITULUA: EBAZPENA, BERRIKUSPENA ETA EGUNERAKETA

15. artikulua- Ebazpena.

Organo eskudunaren ebazpenak zerbitzu horri aplikatu beharreko prezio publiko osoa adieraziko du, bai eta, hala badagokio, gaitasun ekonomikoaren arabera dagokion prezio publiko hobariduna ere.

16. artikulua- Ofiziozko berrikuspena eta jakinarazteko betebeharra.

1. Eguneko Arretarako Landa-zentroa erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak —osoak, hobaridunak zein zati batean salbuetsiak— ofizioz berrikusi ahal izango ditu organo eskudunak, edo interesdunak edo haren legezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak eskatuta, bai banakako berrikuspenaren esparruan, bai berrikuspen orokorraren esparruan. Berrikuspen horien ondorioz, prezio publikoa aldatu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada hura zehazteko oinarri izan zen gaitasun ekonomikoan funtsezko aldaketaren bat gertatu dela, dagokion ebazpenaren bidez.
2. Aurrekoaren ondorioetarako, ordenantza fiskal honetan aipatzen den prezio publikoko zerbitzuen erabiltzaileak —edo, hala badagokio, bere legezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak—, gehienez ere hogeita hamar eguneko epean jakinarazi beharko du, gertatzen den egunetik zenbatzen hasita, bere bizikidetza-egoeran, egoera zibilean, egoitzan, errentan edo bizikidetzagatik konputagarriak diren ondareetan (norberarenak edo besteenak) aldaketaren bat ematen bada; era berean, erabiltzaileari

esleitutako prezioetan eragin dezaketen gorabeheren berri eman beharko du.

3. Administrazio eskuduna jakitun bada gaitasun ekonomikoan aldaketaren bat izan dela eta aldaketa hori ez dela behar bezala jakinarazi aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan, esleitutako prezio publikoa berrikusiko du, inguruabar berrietara egokitzeko. Bi kasu eman ahalko dira:

   a) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa bada, atzerako eraginarekin aplikatuko da, aipatutako inguruabarrak aldatu diren egunera, eta 3.1 artikuluan aurreikusitako moduan ordaintzera behartutako pertsonarentzat epe horretan metatutako atzerapenak ordaintzeko betebeharra sortuko du.

   b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, ez da atzeraeraginez aplikatuko.

4. Administrazioari gaitasun ekonomikoan aldaketaren bat izan dela jakinarazi bazaio, eta administrazio horri egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, 2 hilabeteko epean ez bada berrikusi prezio publikoa, bi kasu gerta daitezke:

   a) Esleitutako prezio berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa bada, ezingo da atzeraeraginez aplikatu.

   b) Esleitutako prezio berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, administrazioak bidegabe kobraturiko zenbatekoak itzuli beharko ditu.

17. artikulua- Prezio publikoen eguneraketa.

Ordenantza fiskal honetan ezarritako prezio publikoak ordenantza baten bidez eguneratu beharko dira. Ordenantza horrek, halaber, aplikatu beharreko hobariak zehaztuko ditu eta behar adinako gaitasun ekonomikoa mugatuko du.

III. KAPITULUA: PREZIO PUBLIKOEN ZIOZKO ZORRAK

18. artikulua- Prezio publikoen ziozko zorrak.

1. Zerbitzuak sorrarazitako eska daitekeen prezio publikoari —prezio osoa zein prezio hobariduna— dagokion ordainagiria ez bada ordaindu bankuak atzera bota duelako, horren zenbatekoa eskatuko da, eta 30 egun naturaleko epea emango zaio ordaintzera behartutako pertsonari zor duen zenbatekoa ordaindu dezan edo ordainketa zatika ordaintzeko eska dezan.

2. Aurreko puntuan aipatutako epea eskatutako zenbatekoa ordaindu gabe edo ordainketaren zatikapena eskatu gabe iraganik, 1. paragrafoan aipatutako prezio publikoa premiamenduzko administrazio-prozeduraren bidez eskatuko da.

3. Eska daitekeen prezio publikoa behin baino gehiagotan ordaintzen ez bada, zerbitzua jasotzeko eskubidea eten ahalko da.

4. Sartzeko prozedura batean egiaztatuko balitz ordenantza fiskal honen 3.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera ordaintzera behartuta dagoen pertsonak aurretiko zorrak dituela Eguneko Arretarako Landa-zentroari dagokion prezio publikoa ordaindu ez izanagatik, pertsona eskatzaileari eskatuko zaio, 30 egun naturaleko epean —dagokion jakinarazpena jasotzen den egunetik zenbatzen hasita—, ordain ditzala zor dituen zenbatekoak edo eska diezaiola organo eskudunari zorra zatikatzeko, artikulu honen 1. eta 2. ataletan aurreikusten den bezala.

Pertsonak ez badu errekurtsorik aurkezten zorraren ordainketarako, zerbitzu berrian sartzeko eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe, horretarako eskumena duen organoak ebazpena eman ondoren. Hala ere, pertsona horrek, ondoren, zorra ordaindu eta sartzeko beste prozedura bati ekin ahal izango dio.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. Ezkontzaren antzeko harremana.

1. Ordenantza fiskal honen ondorioetarako, ezkontzaren antzeko harremanaren bidez lotuta daudela ulertzen da izatezko bikoteei buruzko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean (autonomia-mailan dagoena indarrean) zehaztutako izatezko bikoteak.
2. Lotura hori Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroaren ziurtagiriaren bidez edo, hala badagokio, Udal Erregistroaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, aipatutako Legearen 3. artikuluan araututako moduan.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Ohiz kanpoko egoerak.

1. Eguneko Arretarako Landa-zentroaren erabiltzaileek izan ditzaketen inguruabar sozial eta/edo ekonomiko bereziak kontuan hartuta, organo eskudunak hobari partzialak edo osoak adierazi ahal izango ditu edo, hala badagokio, ordenantza fiskal honetan aurreikusitako hobariak, salbuetsitako zenbatekoak edo erabilera libreko zenbatekoak gehitu ahalko ditu.

2. 6. artikuluan aipatzen ez diren arrazoiengatik zerbitzuaren erabileran etenaldiak gertatzen direnean, organo eskudunak prezio publikoaren salbuespen partzialak onestu ahalko ditu, lanpostua gordetzeagatik.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean sartzea.

1. Ordenantza fiskal hau, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.
2. Ordenantza fiskal hau egun horretan edo geroago Eguneko Arretarako Landa-zentroan sartzen diren pertsonei ezarriko zaie.

I. ERANSKINA

PREZIO PUBLIKOAREN ZENBATEKOA

1. tarifa Eguneko arretarako landa-zentroa.	
1.1 tarifa Arreta pertsonalerako zerbitzua	119,73 €/hilean
Zerbitzu osagarriak:	
1.2. tarifa Janari-zerbitzua	81,60 €/hilean
1.3. tarifa Arropa garbitzeko zerbitzua	7,54 €/ekitaldiko
1.4. tarifa Komun geriatrikoaren zerbitzua	4,68 €/ekitaldiko

1.1 eta 1.2 tarifetan aurreikusitako zerbitzuak ez direnean egunero erabiltzen, ezarri beharreko prezio publikoa modu proportzionalean kalkulatuko da.

II. ERANSKINA

BEHAR BESTEKO GAITASUN EKONOMIKOA MUGATZEA

I. eranskinean ezarritako prezio publikoak indarrean dauden bitartean, ulertuko da behar besteko gaitasun ekonomikoa dagoela eranskin honetan aurreikusitako kasuetan eta moduan.

1. Hobariak zehaztearen harira 5.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, prezio publikoa osorik ordaintzeko adinako gaitasun ekonomikoa dagoela ulertuko da, baldin eta prezio hori, III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoari jarraikiz kalkulatuta, hileko 1.500,00 eurokoa edo handiagoa bada.
2. Halaber, behar besteko gaitasun ekonomikoa dagoela ulertuko da pertsonak 50.000 euroko edo gehiagoko ondare konputagarria duenean, nahiz

eta III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoarekin bat kalkulatutako gaitasun ekonomikoa aurreko tauletan aurreikusitako mugak baino txikiagoa izan.

III. ERANSKINA

HOBARI APLIKAGARRIAK

I. eranskinean ezarritako prezio publikoak indarrean dauden bitartean, hobari hauek aplikatuko zaizkie zerbitzu bakoitzari dagokion prezio osoa ordaintzeko adinako gaitasun ekonomikorik ez dutenei, ordenantza fiskal honen 5. artikuluan aurreikusitako moduan:

Eguneko arretarako landa-zentroen esparruan emandako arreta pertsonalerako zerbitzuak ordaindu beharreko banakako prezioa zehazteko, familiaren hileko gaitasun ekonomikoaren arabera, honako taula-baremo hau ezartzearen ondoriozko hileko zenbatekoak ezarriko dira:

Familiaren gaitasun ekonomikoa (eurotan)	Kopuru honetara arte (eurotan)	Zenbatekoa	Gainerako, kopuru honetara arte	Ehunekoa
0,00 eurotik	0	0	500,00	3,0
600,00	500,00	17,35	100,00	5,0
700,00	600,00	22,35	100,00	7,0
800,00	700,00	29,35	100,00	10,0
900,00	800,00	39,35	100,00	10,0
1.000,00	900,00	49,35	100,00	11,0
1.100,00	1.000,00	60,35	100,00	11,0
1.200,00	1.100,00	71,35	100,00	12,0
1.300,00	1.200,00	83,35	100,00	12,0
1.400,00	1.300,00	95,35	100,00	12,0
1.500,00	1.400,00	107,35	100,00	12,38
1.500,00 euro baino gehiago		Gehieneko tarifa		119,73 euro

III. A. E R A N S K I N A

HITZARMENA, BARRUNDIAKO UDALAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKOA, EGUNEKO ARRETARAKO LANDA-ZENTROAREN ZERBITZUAREN ESKUMENAK ESKUORDETZEKO ETA EGUNEKO ARRETARAKO LANDA-ZENTROAREN GARRAIO EGOKITUKO ZERBITZUA AGINTZEARI BURUZKOA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak arautzen du botere publikoek duten betebeharra eskubidearen titular guztiei bermatzeko prestazio eta gizarte zerbitzuetarako sarbidea eta eskuragarritasuna, lege horretan nahiz Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan finkatutako terminoetan. Hori guztia Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera, Arabako Foru Aldundiak eta Lurralde Historikoko udalek berretsi zutena 2016ko uztailaren 22an, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren baitan.

12/2008 Legearen 22. artikuluaren arabera, Eguneko Arretako Zerbitzua udal eskumena da, eta hainbat eskumen ditu esleituta. Izan ere, Lurralde Historikoko udalerri gehienek, tamaina eta biztanleria txikia dutenez, ez daukate zerbitzu hori eraginkortasunez emateko beharrezko azpiegiturarik.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 31. artikuluak adierazten duen bezala, aldundiek ziurtatu behar dute udal eskumeneko zerbitzuak lurralde osoan modu integral eta egokian ematen direla. Bada, testu beraren 36. artikuluaren arabera, aldundiek, besteak beste, udal zerbitzuei dagokienez juridikoki, ekonomikoki eta teknikoki lagundu eta kooperatzeko zeregina daukate. Horrenbestez, gomendagarria da Arabako Foru Aldundiak parte hartzea udal eskumeneko zerbitzu hori ematen.

Horregatik, lurralde osoan zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko mekanismoak arbitratze aldera, komeni da Arabako Foru Aldundiaren eta hala erabakitzen duten udalen artean lankidetza-esparru bat prestatzea udal eskumeneko zenbait betebehar gauzatzeko.

Lankidetza hori legeak jasotzen du administrazioen arteko kolaborazio, kooperazio eta laguntza printzipioetan; besteak beste, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 140. artikuluan eta hurrengoetan eta Gizarte Zerbitzuen Legearen 43. artikuluan eta hurrengoetan. Hitzarmen honetan gauzatu dira horiek.

Eguneko arretako zerbitzuarekin lotutako udal zereginek izaera ezberdina izateak beharrezko bihurtzen du hitzarmen honek, lehen aipatutako 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoaren arabera formalizatu

denak, barne hartzea prestazio sozialarekin nahiz diru publikoaren bilketarekin eta Eguneko Arretarako Landa-zentroaren dagokion garraio egokituaren zerbitzuaren kudeaketaren agintzearekin lotutako funtzioak egikaritzeko eskumenak kolaboratiboki eskuordetzeko formula.

Foru lankidetzaren oinarrietako bat denez sustatzea zerbitzuaren kalitatea eta intentsitatea antzekoa izatea Arabako udalerri guztietan, zerbitzua eta horren prezio publikoak arautzen dituen araudia berbera izan behar da hitzarmena sinatzen duten udal guztientzat. Horrela, gainera, eskumenen eskuordetzea erraztuko da. Horixe da zerbitzua eta horren prezio publikoak arautzeko araudia hitzarmenaren eranskin gisa txertatzearen arrazoia.

Lurralde Historikoan hitzarmen honi atxikitzen zaien udalerrietan aplikatuko da hitzarmen hau, honako klausula hauetan adierazitako terminoetan:

KLAUSULAK

Lehenengoa. Xedea.

1.1. Hitzarmen honen xedea da Arabako Foru Aldundiari eskuordetzea Eguneko Arretarako Landa-zentroaren zerbitzuari dagozkion eskumenak eta hala behar duten onuradunentzako Arabako Foru Aldundiko Barrundiako udalaren Eguneko Arretarako Landa-zentrora joateko garraio egokituko zerbitzuaren kudeaketa agintzea.

1.2 Hitzarmenetik at gelditukо dira Eguneko Arretarako Landa-zentroaren zerbitzuari buruzko informazioari, balorazioari, diagnostikoari eta orientazioari lotutako udal eskumen eta funtzio guztiak; izan ere, horiek oinarrizko gizarte zerbitzuei dagozkie, eta zuzenean udalak berak edo Kuadrillak emango ditu. Halaber, oinarrizko gizarte zerbitzu horietatik erreferentziazko profesional bat izendatuko da, kasuaren koordinazioa bere gain hartuko duena, Banakako Arreta Programa edo, kasuan kasu, Arreta Plan Pertsonalizatua egingo duena, pertsona edo familia erabiltzailearen partaidetzarekin. Esku-hartzearen jarraipena ere egingo du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin batera, eta interesdunei orientazioa eta laguntza emango die dagozkien espedienteak izapidetzeko eskaera eta beharrezko dokumentazioa formalizatzeko.

Bigarrena. Eguneko Arretarako Landa-zentroaren Zerbitzua arautzeko araudia eta hitzarmenaren eraginkortasuna.

2.1 Arabako Foru Aldundiak eta Barrundiako udalak konpromisoa hartu dute hitzarmen hau sinatzeko Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzu hau arautzeko udal erregelamendua eta dagokion ordenantza fiskala onetsi ostean. Horiek hitzarmen honi erantsi zaizkio I. eta II. eranskin gisa, hurrenez hurren.

2.2. Araudi horren onespena eta indarraldia ezinbesteko baldintza da hitzarmen honen eraginkortasunerako eta indarraldirako.

Hirugarrena. Eskumenak eskuordetzearen irismena.

3.1 Barrundiako udalak Arabako Foru Aldundiari eskuordetu dio Eguneko Arretarako Landa-zentroaren Zerbitzuaren arloan honako eskumen hauek gauzatzea:

a) Horretarako ezarrita dagoen Balorazio eta Orientazio Batzorde Teknikoaren bidez baloratzea oinarrizko gizarte zerbitzuek bideratutako espediente guztiak. Desadostasunik egotekotan, espedientea bideratu duen udalak/kuadrillak izendatutako pertsona bera sartu ahal izango da.

b) Proposamen teknikotik (udal gizarte zerbitzuek egina) abiatuta izapidetzea, erabat amaitu arte, zerbitzu hori ematearekin lotutako administrazio prozedurak. Horretarako beharrezko ebazpenak emango dira, eta, bereziki, prestazio horren eskubidea aitortu, eskuratu eten eta/edo iraungitzekoak, Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzuaren udal araudi arautzailean ezarritako terminoetan.

c) Ordenantza Fiskalean ezarritako zerbitzua emateagatiko prezio publikoen kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, bat etorriz Tokiko Ogasunak erregulatzeko araudian eta, horren ordezko gisa, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoarekin.

d) Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzuaren arloan zehatzeko ahala erabiltzea eta legez bideragarri diren ikuskapenak eta egiaztapenak egitea.

e) Eskuordetutako eskumenak egikarituz emandako egintzen aurka jarritako administrazio errekurtsoak ebaztea.

3.2 Arabako Foru Aldundiari dagokio ahal hori gauzatzea, bat etorriz indarrean dagoen araudiarekin eta, bereziki, zerbitzua eta bere prezioa arautzeko araudiarekin, bigarren klausulan aipatzen denarekin.

Laugarrena. Eguneko Arretarako Landa-zentrora joateko garraio egokituko zerbitzuaren emakidaren kudeaketa agintzearen irismena.

4.1 Barrundiako Udalak Arabako Foru Aldundiari agindu dio Eguneko Arretarako Landa-zentrora joateko garraio egokituko zerbitzuaren emakida, eta aldundiak onartu egin du.

4.2 Arabako Foru Aldundiak aipatutako garraio egokituko zerbitzua behar bezala emateko aplikatu beharreko jarraibideak eta irizpideak eman ahal izango ditu.

4.3 Kudeaketaren agindu hori Arabako Foru Aldundiak egin ahal izango du zuzenean edo zeharka, kontratu edo hitzarmen bidez, legez ezarritako forman. Gehienezko iraupenak ezin izango du gainditu hitzarmen honen indarraldia.

Bosgarren. Gobernu eta Koordinazio Batzordea.

5.1 Hitzarmen honetan jasotako akordioak eta horien interpretazioa jarraitu, kontrolatu eta betetzea bultzatzeko Gobernu eta Koordinazio Batzordea sortu da.

Gobernu eta Koordinazio Batzordea honako hauek osatzen dute:

Udaletako sei (6) ordezkari, Aiaraldeko, Ipar-ekialdeko Arabako eta Hegoaldeko Arabako eremu bakoitzeko bi.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika Saileko hiru (3) ordezkari.

5.2 Gobernu eta Koordinazio Batzordeari dagokio antolaketa eta funtzionamenduari buruzko bere erregelamendu propioa egitea.

5.3 Hitzarmen honetan eta horren antolaketa eta funtzionamendu erregelamenduan aurreikusten ez den guztian, Gobernu eta Koordinazio Batzordearen funtzionamendua arautuko dute kide anitzeko organoen funtzionamendu arauek, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoek.

Seigarrena. Gobernu eta Koordinazio Batzordearen funtzioak.

6.1 Gobernu eta Koordinazio Batzordearen funtzioak dira honako hauek:

a. Hitzarmen honen planifikazioa, koordinazioa, jarraipena, kontrola, txostena eta interpretazioa.

b. Hitzarmen honen edozein aldaketa edo berritze jakinaraztea.

c. Hitzarmen honetan berariaz jasota dauden eskudantziak baliatzea.

6.2 Gobernu eta Koordinazio Batzordeari honakoen berri emango zaio urtero:

a. Hitzarmenaren egikaritze-egoera nahiz ekitaldi bakoitzean antzemandako gorabeherak.

b. Erakunde sinatzaileek egin dezaketen proposamenak, kexak edo iradokizunak.

6.3 Arabako Gizarte Politiken Erakunde-arteko Mahaian urtero aurkeztuko da Arabako Lurralde Historikoko Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzuaren jarduera memoria. Hori guztia, lurralde horretako udalekin batera Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzua emateko izenpetutako hitzarmenen baitan.

Zazpigarrena. Eskumen eskuordetuak egikaritzea eta kudeaketa agintzea.

7.1 Eskumenak eskuordetzeak ez du ekarriko titulartasuna lagatzea. Titulartasuna udalarena izango da une-oro, eta horren egikaritzea soilik eskuordetuko da.

7.2 Arabako Foru Aldundiak Gobernu eta Koordinazio Batzordeari emango dio eskuordetutako eskumenen egikaritzearen eta agindutako zerbitzuaren garapenaren berri, gutxienez urtean behin.
7.3 Barrundiako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du Arabako Foru Aldundiari eskuordetutako eskumenen egikaritzeari buruzko informazioa, bai eta agindutako zerbitzuari buruzkoa ere. Horretarako idatzi bat bidali beharko du Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailera. Gehienez ere hogei egun balioduneko epean bidaliko du informazioa Arabako Foru Aldundiak, eskaera Arabako Foru Aldundiko erregistroan sartzen den datatik aurrera zenbatzen hasita.

Zortzigarrena. Araudi ekonomiko-finantzarioa. Alderdien konpromisoak.

8.1 Barrundiako Udalaren konpromisoak.

a) Barrundiako Udalak konpromisoa hartuko du Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzua osorik emateagatiko gastuetarako bere ekarpena % 20koa izan dadin zerbitzu horretan Barrundiako Udalak okupatzen duen plaza bakoitzeko.

8.2. Arabako Foru Aldundiaren konpromisoak.

Arabako Foru Aldundiak konpromisoa hartuko du Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzua osorik emateagatiko gastuetarako bere ekarpena zerbitzu horren kostu osoaren % 80koa izan dadin, eta garraio egokituko zerbitzua ematearen gastuena, berriz, %100ekoa.

8.3. Urtero egingo da aurreko puntuetan hartutako konpromisoei dagokien likidazioa.

Bederatzigarrena. Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek administrazio-izaera izango du. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoek berrikusiko dituzte bide judizialean, bai eta betearazpenean emandako egintza eta erabakiak edo horren ondoriozkoak ere.

Hamargarrena. Iraupena.

10.1 Hitzarmen honek lau urteko iraupena izango du, eta 2021eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean. Indarraldia eta eraginkortasuna bigarren klausulan aurreikusitakoari lotuta gelditukо dira.
10.2 Amaitzean hitzarmena luzatu ahal izango da alderdi biek hala adostuz gero, hasierako iraupenaren besteko aldi batez. Alderdietako edozeinek hitzarmena luzatzerik nahi ez badu, besteari jakinarazi beharko dio, gutxienez amaitu baino sei hilabete lehenago.

10.3 Udal batek hitzarmen hau ez luzatzea erabakitzen badu, edozein arrazoi tarteko, horrek ez luke ekarriko bere eremuko gainerako udalek hitzarmena suntsiaraztea.

Hamaikagarrena. Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak.

11.1 Hitzarmena honakoen bitartez suntsiarazi daiteke:

a. Alde bien arteko akordioa.

b. Edozein alderdiren salaketa, ondorioak izan behar dituen eguna baino gutxienez sei hilabete lehenago formalizatua.

c. Desadostasuna Gobernu eta Koordinazio Batzordearen organoan hitzarmen honen funtsezko klausulen interpretazioari buruz.

d. Funtsezko betebehar konbentzionalak ez betetzea. Suntsiarazteko arrazoi hori aplikatu ahal izateko, hitzarmena suntsiarazteko interesa duen erakundeak aurrez Gobernu eta Koordinazio Batzordeari jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoi hori badagoela eta suntsiarazteko asmoa duela. Jakinarazpen hori egin ostean, Batzordea deituko da, eta gehienez ere hamabost egun balioduneko epean bildu beharko da. Helburua izango da beste alderdia entzun ostean ebazpenaren jatorriari buruzko txostena egitea. Batzordearen txostena egindakoan, erakunde interesdunak dagokion ebazpena emango du.

e. Betetzearen ondorioz gertatutako ezintasuna. Hala joko dira, besteak beste, udalak Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzuari buruzko araudi bat onetsi edo aldatzea, aurrez adostuaz bestelakoa. Hori guztia, hitzarmen honetako bigarren klausulan ezarritako terminoetan eta bertan jasotako salbuespenekin.

f. Indarraldiaren gehienezko epea eta luzapena igarotzea.

11.2 Hitzarmena suntsitu edo iraungi ostean abiatuko da likidazioa. Hori, ukitutako udalari entzun ostean, Arabako Foru Aldundiak formulatuko du eta Gobernu eta Koordinazio Batzordeak onetsiko du.

11.3 Barrundiako Udalaren hitzarmena aldebakarrez suntsiarazteak, Arabako Foru Aldundiak bete ez izanean oinarrituta, Arabako Foru Aldundia behartuko du sor daitezkeen kalte eta galeren dagokion kalte-ordaina bere gain hartzera.

Hamabigarrena. Datuen babesa.

Alderdi biek adierazi dute ezagutzen dituztela honako hauei lotutako xedapenak: datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudia, pertsona fisikoen babesari eta datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio

askeari buruzkoa eta 95/46/CE Zuzentaraua (Datuen babeserako erregelamendu orokorra) indargabetzen duena; eta datuak babesteari dagokionez une bakoitzean aplikagarriak diren gainerako arauak. Horrez gain, hitzarmen honen baitan erabiltzen diren pertsona fisikoen datuei dagokienez arau horietan eskatutakoak betetzeko konpromisoa hartzen dute.

Hamahirugarrena. Hitzarmenari atxikitzeko prozedura.

Hitzarmen hau izenpetzeko, osoko bilkuraren erabakia beharko da, eta, bertan, izenpetzea berariaz onartu beharko da, klausula guztiak eta hitzarmen honen bigarren klausulan aurreikusitako araudia onartu ondoren.